

46 ■ Noizean Behin taldearen disko berria



Aurreko lanaren ildoari jarraitzen dio 'Arazi'-k: melodiarik tartea egiten dion rock metalikoa dakar.



52-53 ■ Arantxa Basagoitiarekin solasean

«Egiten dugun edozein gauzak eragina dauka besteengan», lankidetzak kontuetako adituaren ustez.

«Txillardegiren literaturan, ziminoak gizakia bere baitatik erauzten du»

Ugaztunek Txillardegiren obran hartzen duten lekua ikertu du Markos Zapiainek, ziminoei begiratzuz bereziki

JUAN LUIS ZABALA

Donostia

Gabriel Arestik bezalaxe, duela 50 urte argitaratu zuen bere aurreneko ipuina Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik*-k, *Egan* aldizkariaren 1957ko irail-abenduko zenbakian; *Orangutanen ugartea* zuen izenburu Txillardegiren estreinako lan hark. Geroztik ere maiz agertu dira animaliak oro har eta ziminoak bereziki Txillardegiren eleberrietan, eta agertuko dira berriro ere Elkar argitaletxeak datorren astean kaleratuko duen Txillardegiren *Horretaz* saiakera bilduman ere. Txillardegiren kezka hori aztertu du luze eta zabal Markos Zapiainek (Irun, 1963) Susak kaleratu berri duen *Txillardegik eta ziminoak* saiakera literarioan.

Euskal eleberrigintza «Zomorroaren Aroan» dago gaur egun, Markos Zapiainen ustez, 1996an Harkaitz Canok *Beluna Jazz* nobela argitaratu zuenetik. «Harrezkero, nobelak sitsez, kakalardoz, euliz, killerrez eta antzekoz bete zaizkigu». Aurretik, ordea, ugaztunak ziren nagusi. Zapiainek joera horren barruan kokatzen du Txillardegik animalienaganako oro har, ugaztunenaganako bereziki eta ziminoenganako ororen gainetik beti izan duen «enpatia bizi».

Hiruatal ditu libururak: *Gizonki, abereki; Eleberriak*; eta *Ziminoak bera mintzo*. Horiei *Azkenaurreko laudorioa*. *Bide berriak* atala gehitu die Zapiainek, epilogo gisa.

Gizonki, abereki atalak *Orangutanen ugartea* ipuina du abiapuntu eta ardatz nagusi. Txillardegiren ipuin hori «B serieko film bikain horietako bat» egiteko oinarri izan zitekeela dio liburuan Zapiainek, eta *Planet of the Apes* filma baino hamar urte lehenagokoa eta Pierre Boullearen *La planète des singes* nobela baino sei urte lehenagokoa dela ekartzen dugogora.

Aitzindari filosofiko batzuen ekarpena ere aztertu du Zapiainek, liburuen lehen atalean. Horien artean Montaigne du bereziki aipagarritzat. «Ez da ohikoa filosofian historian Montaignek sufritzen duten animalienaganako agerterten duen gupida sakona. Txillardegik ere erakutsi du hori».



Txillardegik eta Markos Zapiain, atzo, Donostian, Txillardegik eta ziminoak liburuen aurkezpenean. GARI GARNALDE / ARCAZKI PRESS

Eli Laztangueren Kixmi blogean (www.goiena.net/blogak/kixmi/) jasotako ekarpenak ere aintzat hartu ditu Zapiainek. Genetisten azken aurkikuntzak jasotzen dira, besteak beste, blog horretan. «Genetistak orain ari dira garatzen Txillardegiren 1957ko intuitzio batzuk, hizkuntza zientifikoa bidez», Zapiainen iritziz.

UGAZTUNAK ELEBERRIZ ELEBERRI. Eleberriak atalean, Txillardegik orain artean argitaratutako zazpi eleberriak aztertu ditu banan-banan Zapiainek, animalien eta bereziki ziminoen agerpenei adi. «Haizeaz bestaldetik eta Peru Leartzako noeletan agertzen da ziminoak, baina gainerako eleberrietan ere ez ditu ahaztu ugaztunak: zakurra *Leturriaren egunkari ezkutua*-n, Mimukatua *Elsa Scheelen*-en, zaldia *Putzu*-n, katua bat eta zakur bat *Labartzari agur*-en...».

Ziminoak bera mintzo atalak Txillardegiren *Mintzamena gizonetik* at saiakera du ardatz nagusi (UZEIren *Hizkuntzalaritza* hiztegiaren artikulua gisa 1978an argitaratua). «Arazo larri bat» planteatu zuen lan hartan Txillardegik. «Mintzamena hartu izan da azke-

«Genetistak orain ari dira garatzen Txillardegiren 1957ko intuitzio batzuk, hizkuntza zientifikorekin»

MARKOS ZAPIAIN
IDAZLEA

naldian gizakiaren eta animalien arteko bereizgarri garbitzat. Inor ez da ausartzen gormutuak gizaki ez direla esaten, zeinuen bidez komunikatzen direlako. Kontuan hartuta ziminoak nola diren hitz egiteko gai *ameslenez* (*American sign language* delakoan), ez dago inolako bereizgarri garbirik gizakiaren eta ziminoaren artean».

Azkenaurreko laudorioa. Bide berriak atalean, hiru euskal idazlearen testu bana aztertu du Zapiainek, ziminoarekin duten zerikusiaren argitan: Arantxa Iturberen *Txarli* artikulua (BERRIAN 2005eko apirilaren 24an argitaratua), Txema Garcia-Vianaren *Triangelu Hautsia* eleberria (Alberdania, 1998) eta Harkaitz Canoren *Elephant Terrible* ipuina (*Neguko zirku* liburukoa, Susa, 2005).

Ugaztunak bi taldetan banatzen dira Txillardegiren literaturan, Zapiainen ustez: «Batetik, katua eta zakurra daude batez ere; horien bidez, protagonistak nolabaiteko oreka bilatzea espero dugu, sendian eta herrian goxo kokatzea, baina ia beti huts egiten du esperantza horrek. Bestetik, ziminoak dago; ziminoak gizakia bere baitatik erauzi, gizartetik apartatu eta eromen bilakaera arraroetan sartzen du».

Liburuen aurkezpenean izan zen atzo Txillardegik, baina liburua ez duela irakurri aitortu zuen, eta ezin duela horrenbestez iritzirik eman. Amaieran, kazetariak egingako galdera batzuei erantzun zien

hala ere. Erantzun horietan, ziminoei buruz hizketan, argi utzi zuen Zapiainek ez duela oinarririk gabe idatzi honako esaldi hau liburuan: «Gizakiaren eta ziminoaren arteko nahasketen eta mugen edo mugarik ezaren gaineko ardura horrek ez du Txillardegik egundo utzi».

Renoko Euskal Ikasketen Zentroaz liburua argitaratu dute

ERREDAKZIOA
Donostia

Nevadako (AEB) Unibertsitateko Ahozko Historia Sailak eta Renoko Euskal Ikasketen Zentroak *A Candle in the Night* argitaratu dute, Renoko Nevadako Unibertsitatean den Euskal Ikasketen Zentroaren ibilbidearen berri ematen duen liburua, duela 40 urte sortu zenetik gaur egun arte.

Zentroaren sorreran zein garapenean itzala eta garrantzia izan duten pertsonen lekukotasunak dira liburuen oinarri nagusia. Horretaz gain, erakundearen nondik norakoak zehatz azaltzen ditu liburuek.

Euskal Ikasketen Zentroaren eraginez eratu dira Euskal Liburutegia, University of Nevada Press argitaletxearen Basque Book Series liburu bilduma eta University Studies Abroad Consortium programa, besteak beste. Renoko Euskal Liburutegia da gaur egun euskal gaien inguruan ingelesez idatzitako argitalpen kopuru handiena duena.

A Candle in the Night liburua Nevadako Unibertsitateko Ahozko Historia Sailak eman du argitara, eta Pedro J. Oiarzabal arduratu da edizioaz.